

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 405/2020 Erabakia, irailaren 1ekoa. Behin betiko onespena ematea Berantevillako udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketari

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 16ko 362/2020 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Berantevillako udalerrirako hiri lurzorua mugaketari, udalerrirako zenbait lurzatiren egoera zuzen jasotzeko xedeaz.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, 11. artikuluko 4. apartatua, xedatzen du Arabako Foru Aldundiak entzunaldia emango diela eragindako udalei, egokitzat jotzen dutena adieraz dezaten, gehienez ere 15 eguneko epean.

2020ko abuztuaren 10ean, Berantevillako Udalak alegazio idazki bat aurkeztu zuen udal arkitektoaren txosten batean oinarrituta, eta zenbait zuzenketa proposatu zituen. Alegazio horiek Udaltzargi eta Katastro Zerbitzuak partez baietsi ditu.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Onestea, honekin batera doazen planoen arabera, ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Berantevillako udalerrirako hiri lurzorua mugaketa, udalerrirako zenbait lurzatiren egoera zuzen jasotzeko xedeaz.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan izan behar da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak jar ditzaten. Berantevillako Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikuluko 5. apartatua, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA